

EUSKARA IKASTAROAK

2008/2009 IKASTURTEA

EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREKO LANGILEENTZAKO IKASTAROAK

Argibide gehiago:

- EHAA: 2008ko maiatzaren 8koa
- Sailtako zerbitzu zuzendaritzetan
- IVAPeko Euskalduntze Zerbitzuan
- Internet: www.ivap.euskadi.net (*euskara > euskara ikastaroak*)
- Eusko Jaurlaritzako intraneten (www.ivap.jakina)

1.- LANORDUETAKO IKASTAROAK

Administrazioko langilez osatutako taldeek honako egutegiak eta ordutegiak izango dituzte:

MODULUA		HERRIA	ORDUTEGIA	HASIERA	AMAIERA
5 ordu		Bilbo eta Donostia	8:00-14:00	2008-10-01	2009-02-13
		Gasteiz	8:30-14:30		
2 ordu	Goizez	Bilbo, Donostia eta Gasteiz	8:00-10:00	2008-10-01	2009-05-29
	Arratsaldez	Bilbo eta Donostia	15:30-17:30	2008-10-01	2009-05-28
		Gasteiz	14:40-16:40		

Administrazioko taldeetan ez beste euskaltegi batzuetako taldeetan eskolatzen diren ikasleek tokian tokiko euskaltegiaren ordutegia eta egutegia jarraitu beharko dituzte.

Barnetegiko ikastaroak: Zornotzako barnetegian eta Lazkaoko Maizpide euskaltegian egin ahal izango dira. Egutegiak eta ordutegiak euskaltegi horien eskaintzaren arabera izango dira.

Nork har dezake parte ikastaroetan?

Administrazio Orokorreko langileek har dezakete parte, indarrean dauden lehentasun irizpideen arabera.

Nola egin eskaerak?

Eskaerak egiteko bi bide hauek erabil daitezke:

- Ordenagailu bidezko eskabideak.** Eskabideok bakoitzaren ordenagailutik bete ahal izango dira ondorengo helbidean: www.ivap.jakina. Eskatzaileak, lehenik, XL-Nets segurtasuneko sistemaren bitartez identifikatu behar du bere burua. Eskaerak sail bakoitzean jasoko eta bertan kudeatuko dira.
- Paperezko eskabideak.** Inprimakiak honako helbide elektronikoan daude: www.ivap.euskadi.net (euskara > euskara ikastaroak > inprimakiak)

Inprimakia bete eta norberaren zerbitzu zuzendariari bidali behar dio langileak.

Eskatzeko epea

Maiatzaren 9tik 26ra bitartean (biak barne)

Ikastaroetara joateko baimena eta ordu-kreditua

Baimena eskatzailearen saileko zerbitzu zuzendaritzak emango du. Lanorduetako ikastaroetara dagokienez, ordu-kredituak ezartzen dituen Aginduari jarraituko zaio (Agindua, 2004ko apirilaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko langileen euskalduntzean aplikatuko diren ordu-kredituak ezartzen dituen; EHAA: 2004-5-7; 85. zk.a).

Ondorioz, euskara ikastaroa lanorduetan hasi ahal izateko, beharrezkoa izango da ordu-kredituaren saldoa aldekoa izatea. Ordu-kreditua ikastaroa aurrera doala agortzen bada, langileak ikastaroa bukatu arte jarraitu ahal izango du.

Ordu-kreditua agortu ondoren, dagokion hizkuntza-eskakizuna gainditu ez duen langileari ez zaio onartuko lanorduetan euskara ikasteko eskabide gehiago, harik eta gainditu beharreko hizkuntza eskakizuna lortu arte.

Mailaketa probari buruz

IVAPek, eskatzailearen mailaren berri ez badu, mailaketa proba egitera deituko du. Proba egitera administrazioako taldeetan sar daitezkeen langileak baino ez ditu deituko IVAPek, betiere, eskatu dituzten tokia eta ordutegia kontuan izanda.

1. urratsean hasi behar duen eskatzaileak ez du mailaketa probarik egin behar izango.

IVAPek mailaketa probak ekainaren bigarren hamabostaldian egitea aurreikusten du.

Proba egitera deitua izan den langilea **nahitaez aurkeztu** behar da proba egitera. IVAPek aukera aztertuko du aurkeztu ez den langileari aparteko deia egiteko, baldin eta aurkeztu ez izana idatziz egokiro arrazoitzen badio bere zerbitzu zuzendariak IVAPi, beranduen ere, proba egunetik 2 egun balioduneko epean. **IVAPek bertan behera utziko du** lehen probara aurkeztu ez izana arrazoitu ondoren, bigarren proba honetara aurkezten ez den langilearen **eskaera**.

Taldeak antolatzea

IVAPek, erakunde desberdinetako eskaera guztiak jaso ondoren, administrazioako langilez osatutako taldeak antolatuko ditu, maila-toki-ordutegi bereko ikasleak bilduz.

Administrazioako langilez osatutako taldeetan eskolatzerik ez denean, IVAPek matrikula orria helaraziko dio eskatzaileari.

Matrikula orriari buruz

Matrikula orriaren bidez lanorduetan egin beharreko ikastaroak baldintza hauek bete behar ditu:

- 1) Ikastaroak gutxienez **240** orduko iraupena izan behar du. Alfabetatzeko eta EGAKo ikastaroak, dituzten berezitasunengatik, ordu gutxiagokoak izan daitezke.
- 2) Ikastaroak urritik ekainera bitartekoak izan behar dira. Barnetegiko eta egunean 5 orduko ikastaroen kasuan, ikastaroek gutxienez lauhileko iraupena izan behar dute.
- 3) Matrikula orriaren bidez egingo den ikastaroa HABEk homologatua izan behar da.
- 4) Matrikula orriaren bidez ezingo da autoikaskuntza motako ikastarorik egin.

Ezinbestekoa izango da matrikula orria euskaltegian aurkeztuta izatea ikastaroa hasten denerako. 2008ko urriaren 17a baino beranduago entregatzen bada, IVAPek ez du matrikula ordainduko.

Autoikaskuntza

Autoikaskuntza sistemaren bitartez ikasten duten ikasleek gutxienezko asistentzia izan behar dute ikasturte barruan. Gutxienezko hori urritik ekainera ordenagailuan eta mintza saioetan egin beharreko ordu teorikoen %80a izango da.

Gutxienezko asistentzia ez duten ikasleei IVAPek ez die autoikaskuntzako eskaririk onartuko.

Eskolara joatea eta asistentziaren jarraipena

Ikastaroa hasten den egunean bertan hasi beharko du langileak eskolan. IVAPek ez du onartuko **urriaren 17a** baino beranduago hasterik eskolan.

Euskara ikastaroen aprobetxamendua bermatu eta horretarako langileen eskura jartzen diren giza-eta diru-baliabideak optimizatu ahal izateko asmoz, euskara ikastaroetan diharduten ikasleek gutxieneko asistentzia izan beharko dute ikastaroetan.

Horregatik, arau orokor modura honako neurri hau ezarriko da: ikasleek **gutxienez %80ko asistentzia** izan beharko dute diharduten ikastaroan. Ondorioz, ikaslearen hutsegiteek ikastaro osoaren %20a gainditzen duenetik aurrera, IVAPek baja eman ahal izango dio, eta honek utzi egin beharko du ikastaroa.

Ondorio guztietarako ikastegia lantokia da langilearentzat. Beraz, eskolatze eta puntualtasun huts guztiak zerbitzu zuzendaritzan zuritu beharko ditu langileak.

Eskolara joateari uztea

Ikasleak ikastaroa behin betiko uzten duenean, horren berririk ematen ez badu, ordu kreditua agortzen jarraituko du. Hori dela eta, eskola uztea gertatzen den momentuan bere prestakuntzaz arduratzen diren eragileei jakinarazi egin behar die:

- Euskaltegiari: ikasleak ikastaroa utziko duela jakinarazi behar du euskaltegian, honek eskolak utzitako data jarri eta asistentzia datu gehiagorik sar ez dezan.
- Bere herri-erakundeari: ikasleak bere herri-erakundearen aurrean jakinarazi behar du egiten ari den ikastaroa utzi egin duela.
- IVAPi: ikasleak IVAPen ere jakinarazi behar du ikastaroa utzi duela ordu kredituaren zenbaketa eten dezan.

Horretarako, "Jakinarazpena: eskoletara joateari uztea" izeneko inprimakia bete, eta, herri-erakundearen izenpea duela, IVAPera bidali behar du.

Beranduenez ere, eskola uztea gertatu eta **15 laneguneko** epean bidali behar da jakinarazpena IVAPera.

Inprimakia honako helbide elektronikoa honetan eskura daiteke:

www.ivap.euskadi.net (honen barruan bide honi jarraitu behar zaio: *euskara>euskara ikastaroak>inprimakiak*).

2.- LANORDUZ KANPOKO IKASTAROAK

Nola egin eskaerak?

2. **Ordenagailu bidezko eskabideak.** Eskabideok bakoitzaren ordenagailutik bete ahal izango dira ondorengo helbidean: **www.ivap.jakina**

Eskatzaileak lehenik XL-Nets segurtasuneko sistemaren bitartez identifikatu beharko du bere burua.

1. **Paperezko eskabideak.** Inprimakiak honako helbide elektronikoan daude: www.ivap.euskadi.net (euskara > euskara ikastaroak > inprimakiak).

Inprimakia bete eta IVAPera bidali behar da.

Eskatzeko epea

Ekainaren 11tik uztailaren 4ra bitartean (biak barne).

Matrikula orriari buruz

Matrikula orriaren bidez lanorduz kanpo egingo den ikastaroak baldintza hauek bete behar ditu:

1. Presentziazko ikastaroak gutxienez **210** orduko iraupena izan behar du. Alfabetatzeko eta EGako ikastaroak, dituzten berezitasunengatik, ordu gutxiagokoak izan daitezke.
2. Ikastaroak urritik ekainera bitartekoak izan behar dira. Barnetegiko eta egunean 5 orduko ikastaroen kasuan, ikastaroek gutxienez lauhileko iraupena izan behar dute.
3. Matrikula orriaren bidez egingo den ikastaroa HABEk homologatua izan behar da.
4. Matrikula orriaren bidez **autoikaskuntza** motako ikastaroak egin ahalko dira. Ikastaro hauek gutxienez **190** orduko iraupena izan beharko dute.

Ezinbestekoa izango da matrikula orria euskaltegian aurkeztuta izatea ikastaroa hasten denerako. 2008ko urriaren 17a baino beranduago entregatzen bada, IVAPek ez du matrikula ordainduko.

Gutxienerako aprobetxamendua lortzen ez duen langileari IVAPek ez dio ondorengo ikasturterako lanorduz kanpoko eskaerarik onartuko.

Eskolara joateari uztea lanorduz kanpoko ikastaroetan

Eskolan hasi ondoren ikasleak ikastaroa behin betiko uztea erabakitzen bada, horren berri eman behar dio irakasleari eta IVAPi eskola uztea gertatzen den momentuan.

Horretarako, "Jakinarazpena: eskoletara joateari uztea" izeneko inprimakia bete, eta, herri-erakundearen izenpea duela, IVAPera bidali behar du.

Beranduenez ere, eskola uztea gertatu eta **15 laneguneko** epean bidali behar da jakinarazpena IVAPera.

Inprimakia honako helbide elektroniko honetan eskura daiteke:

www.ivap.euskadi.net (honen barruan bide honi jarraitu behar zaio: *euskara>euskara ikastaroak>inprimakiak*).

3.- IKASTAROEN APROBETXAMENDUA

IVAPek aprobetxamendua nahikotzat jotzen du gutxienerako asistentzia %80koa denean.

IVAP 2008-05-08